

Rubio: «Gure helburua herri mugimenduak eta erakundeak uztartzea izan behar du»

Tuterako Batzarre-Euskal Herritarrok hautagaitzaren aurkezpena egin zuten atzo

Juan Kruz Lakasta / Tuterako

Tuterako Batzarre-Euskal Herritarrok hautagaitza aurkeztu zuten atzo Milagros Rubio alkategaiak eta Fernando Barrena Parlamenturako EH-Nafarroaren zerrendaburuak. Rubiok azaldu zuen EH-Nafarroaren xedea «erakundeetan egiten den lana eta herri mugimenduen aldeko jarduna uztartzea» izan behar duela, bai Tuterako Udalean, bai Nafarroako Parlamentuan.

TUTERAKO alkategai Milagros Rubioren arabera, Foru Hobekuntza Nafarroari inposatu zaion esparru juridiko-politiko da, eta EH-Nafarroak hori gainditu eta berri bat eraiki nahi du. «Ezkerreko Euskal Herria berrian pisu propioa edukiko duen Nafarroa lortu nahi dugu», azaldu zuen Rubiok. Haren iduriko, EH plataforma bide horretan aurrera egiteko tresna eraginkorra izan daiteke. Izan ere, haren aburuz «egun bizi ditugun garai berrietan» EHk «emaitza garrantzitsuak» lortuko ditu Tuteran zein Nafarroa osoan. «Egunotan jende guztiak oso iragarpen onak egiten ditu bere buruarentzat. Nik ez dut horrelakorik eginen. Baina argi dago hauteskundeen ondotik erabaki garrantzitsuak hartzeko



Milagros Rubio, Tuterako EHren alkategia, eta Fernando Barrena, atzo Tuteran egin agerraldian.

tenorean gu aintzat hartu beharko gaituztela», adierazi zuen.

Halaber, EH-Nafarroaren Foru Parlamenturako zerrendako bosgarren hautagaiak «oso garrantzitsutzat» jo zuen erakundeetan lan egiteko tenorean herri mugimenduen erreferentzia ez galtzea. «Orain arte herri mugimenduetan lan egin dugu. Orain erakundeetan lor dezakeguna ikusiko dugu, argi baitago presentzia garrantzitsua izanen dugula. Baina ezin dugu ahanzi herri mugimenduen

erreferentzia, eta lehentasuna eman behar diogula orain arte bezala herri mugimenduen jarduna bultzatzeari».

Bestalde, alkategaiak salatu zuen Iruñeko agintariak Erribera ahanzi egiten dutela. «Haien interesen arabera erabiltzen dute, eta hauteskundeen ondotik zokoratu egiten dute», adierazi zuen. Ildo horretatik, «ezinbestekotzat» jo zuen Erriberan unibertsitatea jartzea, eta Erriberako herrien arteko koordinazioa bultzatzea beren xedek gauzatu ahal izateko.

EH-Nafarroako Foru Parlamenturako zerrendaburu Fernando Barrenak UPN Nafarroako Gobernutik kentzearen premia nabarmendu zuen. «Jasanezina litzateke haien kudeaketa pairatzen segitzea». Ildo horretatik, azaldu zuen indar abertzaleak «oso jarrera irekia» duela hauteskundeen ondotik gobernu «aurrerakoi eta eraldatzailea» osatzeko akordioak lotzeari dagokionean: «Gure egitaraua hor egonen da, eta hitz egiteko prest izanen gara».

Bilbo modu serioan gobernatu nahi duela dio Iñaki Azkunak

Agentziak / Bilbo

EAJ-K eta EAK udal hauteskundeetan Bilborako aurkeztuko duten zerrendaren berri eman zuten atzo. Iñaki Azkuna koalizioako alkategaiak adierazitakoaren arabera, Bilboko gobernagarritasunari seriotasuna erantsi nahi dio; «horrekin ez dut esan nahi orain seriotasunez gobernatzen ez denik», gaineratu zuen EAJ-EAren zerrendaburuak. Azkunaren esanetan, «proiektu guztiak eta beren finantzaketa modu errealistak batean eztabaidatu behar dira».

Ibon Areso zerrendakideak programan hirigintza arloan ekimen ugari aurkeztu dituztela nabarmendu zuen. Hain zuzen ere, gai horrekin lotutako ekimen batean oraingo alkategiaren gobernuarekin duen desadostasuna agertu zuen Iñaki Azkunak. Alhondigak kirol eta kulturarako zentro gisa ikusten du EAJ-EA koalizioaren zerrendaburuak, «betiere hiritarren erabilerari begira egindakoa». Josu Ortuondoren taldearen asmoa kirol ekitaldi handietarako eraikuntza egitea da.

UPNk errekurtsioa ezarri du Barañainen aurkeztu ahal izateko

Agentziak / Iruñea

UPN-K errekurtsioa aurkeztu zuen atzo arratsaldean Nafarroako Hauteskunde Batzordean, Barañainen zerrenda aurkezteko posibilitatea eman diezaioten. Herenegun, Rafael Gurra UPNko kideak onartu zuen ez zutela aukerarik izango Barañainen aurkeztu ahal izateko, baina, hala ere, atzo errekurtsioa aurkeztu zuten.

Bestalde, Pedro Eza UPN alderdiko zerrenden arduraduna zerrendarekin gertatutakoari azalpen bat ematen saiatu zen atzo, eta

errua ez dela berea izan esan zuen: «Izatekotan UPNko zerrenden arduradunen eta Barañaingoen artean banatu behar da errua». Bere ardurari dagokionean, Ezak adierazi zuen konfiantza osoa zuela, Barañainen ez zelako zerrendekin inolako arazorik. «Beste herri batzuekin arduratuago nengoen, alderdiak indar gutxiago duen herriekin batez ere, eta haietan jarri nuen interes handiagoa, gauzak gaizki egitearen beldur bainintzen. Baina Barañainen ez nuen beldur hori», adierazi zen Pedr Ezak.

IU-EBk talde ezkertiarren lankidetzari nahi du Bilboko Udalean

I. Olabarri / Bilbo

IU-K atzo aurkeztu zituen Bilbon udal hauteskunde-etarako prestatu duen programaren ildo nagusiak. Gai sozialek osatzen dute neurri handi batean IU-EBren programa. Gai sozial horiek garatzeko orduan ezkerreko alderdi politikoekin adostasuna lortzea beharrezkotzat jo zuen Julia Madrazok. Bilboko Udalak demokratikoa goa behar duela eta auzoetako batzordeei euren arazoak konpontzeko dirua eta hau kudeatzeko ahalmena eskaini diezaietela eskatu zuen IU-EBren alkategaiak.

Enplegua da IU-EBk aurkeztu duen programaren beste ardatzetako bat. Azken urteetan egoerak hobera egin duela adierazi zuen Julia Madrazok bere agerpenean, hala ere, aurrekontuetan horretarako 3.000 milioiko dirutza jartzea eskatu zuen. Bilbo bipolarizatutako hiri gisa aurkeztu zuen, eta bipolarizazio hori saihesteko kanpoan geratzen diren auzoak hiri erdiarekin hobeto komunikatzea proposatuko dutela azpimarratu zuen.

Plazandreak Gipuzkoako foru hauteskunde eta Donostiako udal bozetara aurkeztuko da

Erredakzioa / Donostia

PLAZANDREOK plataforma politikoak Gipuzkoako foru hauteskundeetan eta Donostiako udal bozetan aurkeztuko du zerrenda. Duela lau urte aurkeztu ziren lehendabizikoz Gipuzkoako hiriburuan, eta aurtengoan zerrenda dezente handitu dute. Izan ere, foru hauteskundeetara aurkezteko, herrialdeko eskualde guztietan egin behar dituzte zerrendak.

Plazandreak soilik emakumez osatutako plataforma da eta urteak darमतзate alor horretan lanean. Hedabideetara igorri prentsa oharrean diotenez, epe laburrean aurkeztuko dute euren programa.